


ESCALADA



**BUSCANDO A
ZUNBELTZ EN LA
OESTE DEL NARANJO**

◀ **Nos aproximamos al Naranjo. Frente a nosotros queda la cara Oeste.**

Superando el segundo largo.

Ya sabes

ANTXON ALONSO

YA sabes, estás por ahí con los amigos, siempre pensando en montar algo, escuchando ideas o proyectos, hasta que ese día llega. Y con esa gente que te da buen punto.

Ellos son: Olarra, Aitor, Goiz y yo. Experimentados jóvenes alpinistas (ya sabes, siempre entramos en polémicas tontas, mejor o peor, así o asao). En resumidas cuentas, aquí ahora, con esta gente y me gusta. Parece ser que, por fin, nos escapamos de Donosti.

Ibamos todos en esa máquina flotando. Llena de interruptores, pilotos de señalización y mandos de control de desplazamiento (Aitor, Goiz, Olarra y piloto) y moderna música. Creo que llovía mucho y estaba oscuro, falta de sol. Osea, estábamos a la espera de las imágenes que nos iba a poner la pantalla de nuestro coche.

Ya sabes, te sientas y la máquina te lleva, y mientras tanto ves lo que sucede en el exterior. (Por cierto, tengo la impresión de que estamos arrasando con la zona norte.) Un poco deprimente ya es, ver tanta industria de futuro poco venturoso.

¿A quién no le pasa por la cabeza, en horas de viaje, el por qué de todo esto? Cada uno encuentra la manera de justificar todo, en esos agujeros de la conversación.

Llegamos un poco tarde. Y el tiempo pasa a más lento, dormir es sólo nuestro plan.

Es entonces cuando me acuerdo de mi trabajo, tan importante para poder «vivir»...

Cuando miro para abajo y veo mis botas cómo pisan la hierba, la nieve, el barro, mis pasos van hacia arriba y mi cabeza sigue pensando en lo de abajo. Ya sabes, abajo, en tus amigos, no acabas de dejarlos y no piensas más que en ellos. Me imagino que cada uno irá con su historia. Según patea. Cada imagen te trae nuevos pensamientos. Estamos escalando, vivimos los momentos, a veces duros, pero bueno. No todo es sufrir.


Nuestra ilusión era abrir una vía ahí, en ese hueco que ofrecía el Naranjo en su cara más difícil. Igual nuestra vía es fuerte o muy fuerte, qué más da. Cada uno dio lo que podía y lo pasamos muy bien. Quizá es ahora cuando más disfruto de aquellos momentos.

Cuando las cosas acaban, cada uno entra en sus asuntos y te alejas de unos amigos y te incorporas con otros. Sabes que están ahí, que puedes contar con ellos, vamos que... aquí lo dejamos y que luego continuamos, que tranqui.

Ya sabes, te quería explicar algo o igual hablarte de montaña; perdona, lo siento, en otro momento será. Igual lo hablemos algún fin de semana, de esos que salimos por ahí, ya sabes, con el material...

FICHA TECNICA

- La vía se abrió en lo largo de 14 días de escalada, en tandas de 3 días, entre el 29 de Diciembre y el 13 de Febrero.
- Longitud del tramo abierto: 320 metros.
- Dificultad: 6.A4.



Erromanze zaila

J.A. OLARRA

ESTUTASUNA, hemendik irten beharra, kea ikusten dut inguruan, zigarrotik kea dario, tebernaren atetik kea presaka irtezen, beste zerbeza bat eta neska alai baten irrifarrak alaitzen nau, beste irrifar bat, eta urduri nago, nire aurean bostehun metro-tako arroka tontor bat daukat. Nire ingurua orain trasto betea daukat, trasto hauen ondoan elur txuria eta guzti hau argitzen alai begiratzen didan eguzki handi eta hori bat. Aluzinazio handia buruan eta dena bataila hasteko prest dago, harkaitzari berriz begiratzen diot eta orain ez dit irriparrik egin, gustatuko ote natzaio? Nik bera atsegina dut eta bere gorputza ikutzeko irrikitan nago. Metro bat, beste metro bat, beste zerbeza bat eta mozkortzen ari naiz, lagunak eztabaidan, musika fuerte dago eta ni joanda nago, ez daukat burua hemen, hemen nago baina bostehun metro-tako printsesa batekin ari naiz amets egiten.

Kaixo, zer moduz? Lehengoko neskak agurtu eta nire ametsetatik esnatu nau, beste trago bat eta abesti honek dituen soinuak barru barruraino sartzen zaizkit, soinu atseginak, iltze honek atera duen bezelako soinu atsegina, bere gainean igo eta metroz metro erlazio txiki batetara iristen ari gara printsesa anaranjatu hau eta ni.

Bagoaz beste txoko batetara, kaleetan jende ugari, borroka bat dirudi, ni hara, hi hona, ahoetatik denak kea botatzen, jendea ugari eta ni askok desio ez luketen pareta horretan aurkitzen naiz printsesa hau konkistatu nahian; baina nahiko motza naizenez metroz metro,



Fotos: Antxon Alonso.

«Hotel Zumbeltz», en la cara N.O. del Naranjo.

bere konfidantza irabazten saiatzen naiz, apal nahi dut jokatu, harrotuz gero behar bada nire helburuak lur jota aurkituko bait lirateke.

Harkaitz honek zeru urdin hori ebakitzen duen puntu hori ikutuko ote dut? Nire begirada haruntz botatzen dut, tabernaren izkin hartara, irrifar haren bila, baina ez dut aurkitzen, airean dagoen keak ez dit uzten nire begiradaren bukaeran dagoena ikusten, soinua ere fuertea da, oker nago eta hemendik alde egin behar dut, laino hauen lodiera eta beraien kolore grisak elurra ekartzen bait du, horregatik paretatik jeitsi beharra. Tristurak nire gorputza biltzen du, nire katxarro zaharrak hartu eta hirira bueltatu beharra, beldur naiz printsesa anaranjatu honek bere ukapena ematea. Ni saiatzen naiz goraka egiten, baina berak erabakiko du onartzen nauen ala ez, mendiak erabakitzen bait du nork ikutzen duen bere gorputzaren alde sentikorrena, bere gailurra.

Bai, litekeena da; noiz? non? ez da erraza jakitea, beti berdin, beti igual, beti gauza bera, beste zerbeza bat, lagun arteko zarata eta abesti leun batek iraganeko oroipenean sartzen nau. Aurpegi horren irrifarra behar dut, pareta horren begirada tinkoa nigan sentitu eta nire hamaka barruan lo egin nahi dut berarekin eta ipar aldetik datorren haize hotzak nire gorputza hoztu du, bere ondoan zintzilik lo egin nahi dut.

Berriz ere Naranjo azpian aurkitzen naiz eta maitekiro begiratzen diot, zer pentsatuko ote du berak? Ikusten garen azkeneko aldia ez izatea espero dut, berritoki elkar ikustea gustatuko litzaidake, biok bakarrik zerbeza bana eskuan dugula kontu kontari, orduan paregabeiko momentuak igaroko genituzke, istorio berriak, baina zu hor zaude geldituta, tinko, arrano baten modura, nire gorputzak zure zimurtasunetatik metroz metro altuera nola hartzen duen ikusten.

Lurretik berrehun metrotara aurkitzen dudana oztoporik haundiena grabitatearen kontra daramadan borroka da; behar bada zelati dago printsesa anaranjatu hau, daramagun paregabeiko erlazio horren zelati; baina niri bost ajoba, gure lotura leiala da, bera beti hor dago haize eta elurrez inguratuta eta ni hemen beste zerbeza bat

hartzen; hala ere, noizean behin hara joan eta bere paretan zehar daukan bia batetik bere gailurra laztantzen dut; honela denborarekin elkar ezagutu dugu eta atsegina dut bera eskalatzea. Baina orain ezberdina da, orain ez daude lagunik, musika bajua dago eta bere begiak gertu-gertuan dauzkat; horregatik beldur naiz baina aurrera jarraitu behar dut bia berri bat ireki nahian, ziur naizelako orduan gure harremana askoz sakonagoa izango dela, bere harkaitzaren barru barruraino sartuko bait naiz.

Situazioa hoztutuz dijoa, eguzkiak bere begirada nigandik baztertzen du, laino beltzak sorbalda gaintetik arro begiratzen dit eta Naranjoa guzti honen konplizea eginik bigarren aldiz bere ukapena ematen dit. Hau amorrua, lasai egoteko beharra sentitzen dut, soinu bakarreko dantza bat entzun nahiko nuke, nire dantza bere irrifarra eta une atsegin bat biziki bizitzen, azkena balitz bezala sentitzen.

Itsasora begiratzen aurkitzen naiz, atsegina dut itsasoa begiratzeari, istorio interesgarriak kontatzen dizkit, behin eta berriz pareta hura, gailur txurria, ezpain gorriak, mendi handiak, olatu bakoitzak istorio bat ekartzen du.

Pareta horren bukaera ikusi nahiko nuke nire begi aurrean, gau luze baten juerga edo lagun atsegin baten konpania ikusi nahiko nuke, baina goizaren lehenengo dizdirek nire hamaka argitzea atsegina dut.

Orain bai, orain azkeneko igoera izango da, ziur naiz, bere aurpegia laztandu nahi dut, momentua egokia da, eguraldia ona da, pareta garbia dago eta gu hirurok gogo handiekin, orain bai, orain itsasoa aurrean dudala, orain ausartuko naiz. Beste hoge metro, elkarriketa arintzen doa, gustora sentitzen naiz hemen grabitatearen kontra borrokatzen, askok desio ez luketen egoeran pasatzen, baina ferro hauetan esplikatuta ezin ditudan momentuak bizitzen.

Azken tragoak, orain pentsamenduak argiak dira, bere begirada aurre aurrean dut berriz ere eta zertan sartu naizen konturatu gabe amaitzen ari da. Hainbeste buru hauste eman dizkidan pareta honetatik poliki poliki jeisten hasi beharra dut. Poza gorputz barruan elkar ezagutu bait dugu, bera hor tinko eta geldituta ilargiruntz bostehun metrotako irudia erakusten eta ni hemen behean arkakuso baten modura baina bera bezain handia sentitzen.

Motxila karga-karga eginda bera urrutian ikusten dut, elur eta laino artean inguratuta, lehen aldiz ikusi nuen irrifarra berriz ere urrutian azaltzen. Baina orain mendi berriekin pentsatzen ari naiz, amets egiten, hiru lagun tragu bat hartzera, momentu atseginak, mendi batetik hitzegiten, ez Naranjoa, beste mendi bat, beste zerbeza bat, beste hiru lagun, baina mendi honek oso malda handiak eta pareta latzak ditu. Bapatean malda erdian lagun bat gogoz kontra geratu zen, ezin izan zuen segi. Beste biak hor dijoazte poliki-poliki gailurraren bidean, batzutan arrisku handiak suertatzen, batzutan parre, bestetan malko, laister beste bi mendizaleak ere banatuko dira, baina hirurak bakoitza bere bidetik gailurrerantz doaz, eta gailurra iritsiko da, orduan harkaitz honetatik elkar ikusiko dugu eguzkiaren azken izpiak alboko mendietan izkututzen, eh? Berriz ere joanda nengoen sorgin dantza batetan sarturik. Azken dantza ote?

«Begiak lehertzeko zorian zainak etentzeraino heltzean bularra estutzean bihotzak zintzurra itotzen diguenari eutsi, hortzak estutuz idiarena jo, mekaguen bat bota eta aurrera, gogoz egiten diren gauzei bakarrik bait darie arnasa.»

NARANJO DE BULNES: EL ROMANCE DIFICIL

DOS MOMENTOS

«Un metro, otro metro, otra cerveza y me estoy emborrachando, los amigos discutiendo, la música suena fuerte y yo estoy ido, no tengo la cabeza aquí, aquí estoy pero estoy soñando con una princesa anaranjada de quinientos metros»...

...«Ahora sí, ahora será la última subida, estoy seguro, quiero acariciar su cara, el momento es adecuado, el tiempo es bueno, la pared está limpia y nosotros tres con muchas ganas, ahora sí, ahora que estoy frente al mar ahora me atreveré. Otros veinte metros, la conversación se acelera, me encuentro a gusto luchando aquí contra la gravedad.»...

